

**KILIMAR XUXURLAK TALDEAREN
KULTUR PROPOSAMENAK
2020-2021**

Kilimar

Kilimar KOMUNIKAZIOA, LITERATURA eta HEZKUNTZA ardatz dituen proiektua da. Gure helburu nagusia partehartzerako eta sorkuntza kolektiborako espazioak proposatzea da, bakoitzak bere errealitateetan eragin ahal izateko, oinarrizko eskubideetatik abiatuta. Berdintasuna, errespetua, kulturartekotasuna eta aniztasuna dira gure proiektuetan jorratzen ditugun balio nagusiak. Horretaz gain, gure helburu zehatzak honako hauek dira: alde batetik, literatura sustatzeko tresna eta esperientzia jakinak transmititzea (tailerrak, formakuntza saioak eta jardunaldiak, interbentzio poetikoak). Bestetik, tratu onak eta harreman osasuntsuak bultzatzea (afektibotasuna, generoa eta kulturartekotasuna), jatorri zein maila ekonomiko guztietako haur zein gazteei zuzendutako tailer eta bestelako proiektuen bidez.

Halaber, poesia emanaldi musikatuak ere egiten ditugu, Euskal Herriko zein kanpoko literatura euskarri desberdinen bidez transmitituz (testuak, xuxurlak, abestiak). Proiektua adin eta giza-talde guztiei zuzendurik dago, nahiz eta geure proposamenetako gehienak haur eta gazteentzat diren, helduekin ere lan egiten dugu. Emakume eta gorputz disidenteentzako proposamenak ere baditugu.



Garazi Basterretxea Barea

Garazi Basterretxea Euskal Filologian lizentziatua. Hiru master egin ditu: lehenengoa, Bartzelonako UOC unibertsitatean (Humanitats: ars, literatura i cultura contemporanea) eta beste biak Euskal Herriko Unibertsitatean; lehena, Gasteizen (Bigarren Hezkuntzako irakaskuntza masterra) eta bigarrena Leioan (Ikasketa Feministak eta Generokoak). Orain doktoretza ikasketak egiten ari da Ikasketa Feministak eta generokoak eskolan (EHU), Argentinako gazteen eta poesiaren arteko harremana aztertzen.

Euskara eta euskal kultura irakasten aritu izan da bai bigarren hezkuntzan bai unibertsitate mailan (University of Liverpool). Gurenduzek eskaintzen duen Sexologia begirale izateko ikastaroa ere egin zuen 2016-2017. ikarturtean.

2013an Kalabazan Kultur Ekimenak elkarteak sortu zuen eta 2018. urterarte gazteekin hainbat kultur proiektu gauzatu ditu, euren artean Book Trailer lehiaketa, poesia xuxurlatua tailerrak eta idazketa sortzailea tailerrak. 2018tik aurrera Kilimarren parte da.

Celeste Agüero

Celeste Agüero Cordobakoa (Argentina) da. Irratigintzako eta filologiako ikasketak ditu. Era berean, irakurketa eta idazketa sustatzeko formakuntza ere badu, Cordobako Unibertsitate Nazionalak antolatutako PROPALE ikastaroa egin baitzuen.

Argentinako lehen xuxurlari talde egonkorreko, Color Susurro, koordinatzailea izan zen (colorsusurro.blogspot.com). Mirta Colangelo arte-hezitzailearen ikaslea eta Alfonsina Storni liburutegiko langilea 2006tik 2018ra. 2014tik 2018ra Paula Albarracin de Sarmiento (Cordoba) institutuko hizkuntza eta literatura irakasle eta liburuzaina izan zen.

2008. Urtetik poesia sustatzen du poesia xuxurlatua tailerren eta irakurle taldeen bidez Argentinako Cordoba, Santiago de Estero, Buenos Aires, La Rioja eta San Juan probintziako zein Espainiako (Sevilla), Kataluniako eta Euskal Herriko leku desberdinetan. 2013. urtean bere kide Maria Jose Ferreirarekin batera sortutako proiektuak, irakurketa txokoak sortzeko ereduak proposatzen zuenak, sari nazionala irabazi zuen.

Azken hiru urteetan Argentinan gazteen Puede Ser cualquiera irratia ere koordinatu du. 2018tik aurrera Kilimarren parte da.

NORTZUK GARA?



POESIA XUXURLATUA

Tailer honek elkar entzuteko espazioa proposatuko du. Horretarako, Parisen sortu baina, batez ere, Argentinan garatu zen teknika erabiliko dugu; hots, poesia xuxurlatua. Margoztutako kartoizko tutuak erabiliko ditugu elkarri poesia konpartitzeko (poema eta liburu hautaketa eramango dugu) eta poesia gorputz praktika bezala ulertuz gorputz dinamikak proposatuko ditugu poemak esateko/xuxurlatzeko (ahotsa, gorputza eta memoria). Ondoren, taldeak interbentzio poetikoa egingo du zehaztuko den tokian (kalean, zentroan, euren artean...), tailerreko partaideek aukeratutako poemak esateko aukera izateko.

IRAUPENA 90 min



**HAUR, GAZTE
ZEIN
HELDUENTZAT**



IRRATIGINTZA TAILERRA

Tailer honetan partehartzaileek irratia zer den eta nola funtzionatzen duen ezagutuko dute (irratia historian zehar izan duen eta gaur egun duen garrantziaren inguruko hausnarketa) eta ondoren irratsaio bat sortu eta ekoiztuko dute, mugikorrak edota ordenagailuak erabiliz. Irratian egoten diren rolak, atalak eta gaiak landuko ditugu, euren saioa sortzeko tresnak izan ditzaten. Berri bat zelan esan ikusiko dugu, iragarkiak sortuko ditugu, edukiak landuko ditugu, eurek aukeratutako gaien inguruko solasaldiak proposatuko ditugu eta teknikoki saioa zelan prestatu ikasiko dugu (internetetik edo irratia frekuentzien bidez). Halaber, ahotsaren esploraziorako, irakurketarako, argi ahoskatzeko, entonaziorako eta saioen erritmoekin jolasteko ariketak ere proposatuko ditugu.

IRAUPENA 90min.



**HAUR ETA
GAZTEENTZAT**



IRAKURZALEEN TXOKOA

Tailer honetan liburuekin eta gainerako partehartzaileekin harremantzeko espazioa sortuko dugu, ariketa dinamiko eta partehartzaileak proposatuz, irakurtzea esperientzia gozagarria izan dadin . Proposamen hau "txoko" formatuan aurkeztu dugu uste dugulako liburuak elkarri irakurtzeaz disfrutatzeko oso garrantzitsua dela konfidantzazko espazio eroso sortzea. Konpartituko ditugun liburuak genero desberdinetakoak izango dira, hainbat autorek idatziak, eta hausnarketa, gai eta kontatzeko modu anitzak proposatuko dituzte.

*IRAUPENA: 90 minutuko saioak astero,
hamabostero edo hilabetero.*



IRAKURTZERAREN MULTIBERTSOA

Tailer honetan irakasleek edota literatur sustatzaileek haur eta gazteei irakurle-ibilbidean laguntzeko baliabideak lantzeko espazioa sortuko dugu. Haur eta gazteekin konpartituko ditugun liburuen hautaketa irizpideetan sakonduko dugu eta irakurketa-plana prestatzerako zein gauzatzerako orduan kontuan izan beharrekoek hausnartuko dugu. Irakurtzeko moduak ere landuko ditugu: klima, ahotsa, isiltasuna, espazioa... Ondoren, liburuen inguruan egiteko ariketa praktikoak proposatuko ditugu eta horiek aurrera eramateko baliabideak aurkeztuko ditugu. Azkenik, haur eta gazteentzako liburutegiak sortzeko eta liburutegi horiek mugimendua eta erabilgarritasuna izateko aholku eta proposamenak lantzeko dinamikak egingo ditugu.

IRAUPENA: Ordu beteko lau saio, bi orduko bi saio edo hiru orduko saio orokorra.



**IRAKASLE ETA KULTUR
SUSTATZAILENTZAT**




IRAKURZALEEN TXOKO FEMINISTA

Txoko honek aldizkako topaketak izango ditu (astean behin, hamabostaldi edo hilabetero) eta bertan eredu kanonikotik at kokatzen diren euskal autoreen lan feministak irakurriko ditugu. Testu horiek sistema heteropatriarkalak zapaldutako gorputzek idatziak izango dira eta eurretatik abiatuta hainbat gairen inguruko (desirak, maitasunak, migrazioak, gorputzak, askatasunak, ...) hausnarketak proposatuko ditugu. Era berean, kontatzeko modu, genero eta ahots desberdinetan arakatuko dugu, partehartzaileak euskal literaturan ditugun errealitate desberdinak ezagutzeko eta identifikaziorako eta gozamenerako aukera gehiago izateko.

IRAUPENA: Bi orduko saioak (astero, hamabostero edo hilabetero)



**GAZTE ETA
HELDUENTZAT**




IDAZKETA TXOKOA

Idazketaren bidez esploratzeko eta sortzeko espazioa da hau. Hainbat baliabide teoriko eta praktikotatik eta autore, gai eta genero desberdinetako testuetatik abiatuta ariketa dinamikoen bidez geure ahots desberdinetan arakatuko dugu, nahi dugun hori adierazteko moduak bilatzeko. Proposamen hau "txoko" formatuan proposatu dugu partehartzaileak euren testuak lasaitasunez eta konfidantzaz konpartitzeko espazio segurua sortzea berebiziko iruditzen zaigulako. Ikasturtearen amaieran idatzitakoak biltzeko proposamena egingo diegu adosten dugun euskarria erabiliz (argitalpena, erakusketa...).

IRAUPENA: Bi orduko saioak, astero, hamabostero edo hilabetero.

**HAUR, GAZTE ZEIN
HELDUENTZAT**



IDAZKETA TXOKO FEMINISTA

Proiektu hau emakumeei eta gorputz disidenteei zuzendua dago. Saio bakoitzean bazterretako autoreen lanetatik abiatuta, eredu kanonikoetatik haratagoko idazlanetan arakatuko dugu, geure gorputzak interpelatzen dituzten testuetatik abiatuta, geure ekoizpenak sortzeko. Idazketarako proposatuko diren dinamikak gorputz esperientzietatik abiatuak izango dira eta genero eta euskarri desberdinen erabilpena proposatuko dugu. Modu honetan sistema heteropatriarkalak baztertzen dituen gorputzen (emakume migranteak, lgtbi kolektiboa, etxeko langileak...) erresistentziarako, ahalduentzeko eta errealitate berrien sorkuntzarako espazioa sortuko dugu.

IRAUPENA: Bi orduko saioak (astero, hamabostero edo hilabetero)

**EMAKUME ETA
GORPUTZ
DISIDENTEENTZAT**





MAITASUNAK ETA DESIRAK:

Tailer honek geure arteko harreman erotikoen inguruko hausnarketak eta dinamika praktikoak proposatuko ditu. Poesia xuxurlatuaren bidez hainbat autoreen poemak ezagutuko ditugu eta bertan agertzen diren harreman ereduak aztertu eta harreman osasuntsuak identifikatuko ditugu. Era berean, elkar zaintzeko dinamikak ere egingo ditugu xuxurlak eskaintzen dizkigun baliabideak erabiliz. Azkenik, aurreko poemetatik abiatuta geure poemak, geuk eraiki nahi ditugun harreman horiek gorpuztuko dituztenak, sortuko ditugu eta interbentzio poetikoen bidez konpartituko ditugu (kalean, zentroan edo geure artean)

*IRAUPENA: 2 orduko saioa (orokorra) edo
2 orduko lau saio (atalak sakonago landuz)*

**GAZTE ETA
HELDUENTZAT**



BIDEOPOESIA

Tailer honen helburua poemak irudi bidez adieraztea da, animazioak eskaintzen dizkigun baliabideak erabiliz. Lehenik, bideopoesiaren oinarrizko kontzeptuak (testua, irudia, soinua, erritmoa eta edizioa) ezagutuko ditugu eta horiek ulertzeko ariketa praktikoak egingo ditugu. Horrela, pixkanaka, geure gustoko poem(et)atik abiatutako bideopoema sortuko dugu.

IRAUPENA: 90 minutu

**HAUR ZEIN
GAZTEENTZAT**



ITZAL ANTZERKIA

Tailer honen helburua itzalen poetikotasunarekin jolastuz esploraziorako eta adierazmenerako espazioa sortzea da. Lehenik, itzal antzerkiaren oinarrizko kontzeptuak (argia, objektuak eta pantailak) ezagutuko ditugu eta antzerkigintzaren atal desberdinez (testua, irudia, soinua eta taularatzea) arituko gara. Halaber, argia eta itzalorekin jolasteko baliabide desberdinak ikusiko ditugu, partehartzaileek euren antzezlanak sortzeko baliabideak izan ditzaten. Azkenik antzezlan laburrak egingo ditugu eta soinuarekin eta ahotsekin jolasak egingo ditugu.

IRAUPENA: 90 minutu

**HAUR ZEIN
GAZTEENTZAT**




ITSAS HARIAK

Haur, gazte zein helduek gozatzeko antzezlanak, itzal antzerkia teknika erabiliz sortua. Eraikin berean bizi diren bi neskatoren arteko harremana kontatzen du. Covid-19a dela eta euren etxean konfinaturik egon arren, modu berezia sortuko dute elkarrekin komunikatzeko. Lur Euskal Herrikoa da; Kristel Boliviakoa, baina duela gutxi bere familiarekin etorri da. Honek euskaraz gero eta hobeto hitz egingo du bere lagun berriarekin izango dituen elkarrizketei esker. Euren amonen istorioak kontatuko dizkiote elkarri eta gustoko dituzten eta desiratzen dituzten gauzak partekatuko dituzte.

IRAUPENA: 30min



**HAUR, GAZTE
ZEIN HELDUENTZAT**



SUAREN FESTA

Haur, gazte zein helduek gozatzeko antzezlanak, itzal antzerkia teknikaren bidez sortua. Animaliek antolatutako Udako Solstizioko festa ikusiko da bertan. Animalia hauek jatorri desberdinetakoak izango dira: Euskal Herriko Kirikiñoa, Marokoko ahuntza, Gineako Leopardoak, Kolonbiako Kondorra eta Boliviako Llama. Bakoitzak bere herriko festak, istorioak, abestiak eta dantzak partekatuko ditu eta guztiek batera, azalduko zaizkien zailtasunei aurre egingo diete.

IRAUPENA: 30 min.

**HAUR, GAZTE
ZEIN HELDUENTZAT**



"LA ENCENDIDA" EMANALDIA

Euskal Herriko eta Latinoamerikako erritmo, doinu eta hitzak biltzen dituen emanaldi poetiko-musikala. Proiektu honen helburua batzen gaituen ozeanoaren alde bietako abesti eta poemen bidez leku horietako garai desberdinetako ahots, borroka zein amets desberdinak, gaur egungo errealitateetan oraindik ere bizirik dirautenak, konpartitzea da. Ahotsean Celeste Agüero izango dugu "cuatro venezolano" delakoaz lagunduta eta Garazi Basterretxea perkusioan (Argentinako "bombo legüero" izenekoa) eta poemen irakurketan arituko da. Emanaldi honek poesia xuxurlatuaren eta arpegioen bidez erlaxatzeko zein kunbia eta txakarera erritmoak dantzatzeko uneak tartekatzen ditu.

IRAUPENA: 60MIN



**GAZTE ETA
HELDUENTZAT**

kilimarkilimar@gmail.com

652730803 / 688775785



Kilimar Susurros Xuxurlak



@kilimarkilimar